

## San Pedro jai bereziak ospatzen

Herritar ugari hurbildu zen Jalguneko gazteek ilusioz prestatzen duten ekitaldira

Jaiak jendearekin biltzeko garaia delako, aurten, Jalgunekoek sanpedroak irudikatu zituzten Manuel Lekuona Kultur Etxeko ohol-tzan. 100 parte hartzaile inguru eta adin guztietakoak, aurtengo IV. edizioak gazte talde honek babes zabala duela erakutsi du.

Izan ere, ohol-tzan ez ezik, aretoan ere herritar ugari bildu zen gazte talde honek ilusioz prestatzen duen jaialdia ikustera.

Jai guztien legez, Jalguneko San Pedro jaien hasieran ez zen txupinazoa falta. Irudikatutako Udaletik, Jalguneko irudia den krokodiloaren jaitsera egin zuten, Zeledonon antzera.

Buruhandiak jende artean ibili ziren eta erromeria eta kalejirak ikusleak dantzan jarri zituen.

San Pedro jaietan ohikoa den Oria ibaiaren jaitsera ere ez zen falta eta Jalguneko lagunak, bideo-montai baten bidez, ibaian murgildu zituzten ikusle guztiak.

### Jaietako giroa

Semblante Andaluzek ez zuen hitzordura huts egin eta Andaluziar doinuak ekarri zituzten

jaialdira eta Jalguneko kideek ederki dantzatu zituzten sevillana batzuk.

Jaietan kaleko giroa ezin falta. Horregatik, kaleko saltzaileak ere saiora gerturatu ziren. Eta noski, mozkorrak ere agertu ziren ohol-tza gainera.

Jaietako ekintzekin jarraituz, Orkestra Top Jalguneko dantzaldia ekarri zuen aretora eta bertan *paquito el chocolatero* doinuak ez zuen huts egin.

Kaleko ikuskizunak, antzerkia, saltsa eta merenge dantzaldiak eta su artifizialak, herriko jaietako egitarauan aurkitu ditzakegun ekitaldi-tako batzuk lekua izan zuten larunbatean kultur etxeko aretoan.

Zezen *sustoak* ere bisita egin eta etxeko gaztetxoan zezenaren adarretatik ihes egiten ikusi genituen ohol-tza gainean.

### Agurra eta eskerrak

Eta nahiz eta jaietako amaiera eman, Jalguneko lagunak abesti eta dantza sorta ederra eskaini zituzten, parte hartzaile guztiei bihotzez eskerrak eman eta jaialdia amaitutzat eman baino lehen. •



Ondo ibili ziren Jalgunekoak sevillan dantzatzeko Semblante Andaluzeko lagunak doinuak erritmorik.



Locomia taldea egon zen, artista gonbidatu bezala, Jalguneko lagunak San Pedro jai berezi hauetan.



Agus Mujika,  
*Takolori* omenaldi  
hunkigarria egin  
zitzaien, Ttakun  
sarietan /4-5

### KIROLA /2

Gipuzkoako  
padel txapela  
buruz buru  
jokatu zuten  
Elizabet Iradi  
eta Eli Lorezok



Georgian barrena  
ibili dira uda  
honetan Mikel  
Urdepilleta eta  
Igor Unanue /6

## Zitek zientzi eskola

- Taldeka zein banakako eskolak
- Ikasteko teknika
- Informatika ikastaroak:
  - ume eta helduentzat
  - goizez, arratsaldean eta larunbatetan

Goikale 12 behea  
Tel.: 943 363 106  
20160 Lasarte-Oria

MATEMATIKAK  
FISIKA  
KIMIKA  
ESTADISTIKA  
LENGOAI  
EUSKARA  
INGELES  
MARRAZKETA TEKNIKOA  
AUTOCAD  
INFORMATIKA

## Bideo Lagunak

TIEN 21 Bideo Lagunak

Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

# ‘Finala polita eta borrokatua izan zen’

Elizabet Iradi Gipuzkoako padel txapelduna da eta Elixabete Lorenzo, txapeldun ordea

Azaroaren 5etik 7ra bitartean Donostiako Tenisean Gipuzkoako Padel Txapelketa jokatu zen. Asteburu horretan, emakumezkoen sailean bi herritarrek hartu zuten parte, Elizabet Iradik eta Eli Lorenzok.

Lagunak izan arren, oraingo honetan ez dute elkarrekin jokatu. Iradik Maider Juanikorenarekin jokatu zuen eta Eli Lorenzok Amaia Etxarriekin.

Lehenengo bikotea izan zen azkenean garaipena eskuratu zuena “finala borrokatua izan zen, kostata lortu genuen garaipena” adierazi digu Elisabet Iradik.

Orotara 16 bikotek hartu dute parte, eta esan bezala garaipena Lasarte-Oriako Elizabet Iradik eskuratu du bere bikotearekin. Bigarren postua ere herrira etorri da Eli Lorenzoren eskutik.

## Meritoak kentzen

Elizabet Iradi aurreko urtean txapeldun ordea geratu zen eta aurten txapela berea egin du, hala ere “ez dut txapelketa garrantzitsua bezala ikusten, nesken kategorian nibel gutxi baitago” adierazi digu. Gainera, “errealitate bertuala irudikatzen du titulu honekin profesional ibilitako batekin jokatu nuen txapelketa” gaineratu digu.

## Partida gogorra

Finala lagunaren artean jokatu zen “oso polita izan zen eta borrokatua egia esan” dio Iradik. “Lehia biziko partida izan zen baina merezita irabazi zuen Elizabet bere bikotearekin” adierazi digu Lorenzok.

Hala ere, Iradik dio Lorenzo eta Etxarri ez zutela ohiko jarrera izan partidan “normalean bikoteak desorekatuak direnean pilota guztiak txarrenari botatzen zaizkie, neri kasu honetan, horrela berarekin akabatzea lortzen duzula-

ko, oso kirol krudela da, baina partidu honetan ez zuten egin” azaldu digu txapeldunak.

6-2 eta 6-0 izan ziren partidako emaitzak “emaitzak ez du adierazten partida gogorra izan zela, kostata irabazi genuen” argitu digu Iradik.

## Lagunak etsai

Lagunak eta elkarrekin jokatzen badute txapelketa honetan etsai bihurtu ziren “hasieran elkarrekin jokatzea genuen pentsatzea baina azkenean ez” azaldu digu Lorenzok.

Padelean gainera, bikote batekin txapelketaren bat irabazi ezker “hurrengo lehian bikotez aldatu behar duzu” azaltzen digu Lorenzok. Behin eta berriro “bikote berrira ohitu behar zara eta bere xarma dauka, Elik aldiz ez dio alde hori ikusten” azaldu digu Eli Lorenzok.

## Euskadin atzeratuak

Eli Lorenzo Euskal Herriko txapelketan ere aritu da, bigarren postua eskuratuz. Bere ustez, “jende gutxi ibiltzen da hemen, beste autonomia erkidegoetan gehiago mugitzen dira, sari politagoak eta lehia gehiago egoten da”.

Txapelketek ere gehiago irauten dute “eta bakoitza bere nibelego jendearekin ibiltzen da, ez hemen bezala denak batera” gaineratu digu.

## Tenisetik Padelera

Txapelketa honetan aurkari izandakoak elkarrekin hasi zuten padelean jokatzen. “Betidanik tenisean aritu gara eta padelaz hiz egiten entzun genuenean probatzeko jakinmina sartu zitzaigun” azaldu digu Lorenzok.

“Eta oso entrenigarria eta erraza iruditut zitzaigun” gaineratu du Iradik. Padel munduan jokatu zuten lehenengo



Elizabet Iradi Gipuzkoako Padel txapelduna, Elixabete Lorenzo txapeldunordearen ondoan. Biak dira lasarteoriatarrak.

txapelketa Zarautzen izan zen “eta finalera iritsi ginen, han *Las Elis* bezala ezagutzera eman ginen” azaldu digute.

## Padelaren abantailak

Padela tenis eta squash-aren nahasketa dela adierazi digute bi Eliek “teniseko jende asko pasatzen ari da erraza eta kurioa dela eta” azaldu digute. “Tenisean mailarik ez baduzu pelotak jasotzen ibiliko zara egun osoa, baina padela teknikoki errezagoa da, abilitate ezberdineko pertsonentzako egokia” jakinarazi digu Elisabet Iradik.

Hala ere “tenisean zu bakarrik zara bestearen kontra jokatzen duzuna, baina padelean bikotearekin jolastu, lagundu eta jarraitu behar duzu” azaldu digu Lorenzok. “Psikologikoki zailagoa da padela beraz” gaineratu digu padel jokalaria.

## Padel pista noizko

Herrian padel pista eraikitzen ari dira “abendurako marxan egongo zela esan baziguten ere esperantza gutxi ditud” azaldu digu Eli Lorenzok LOKEk sortu berri duen Padel sekzioko irakasleak. Gero eta jende gehiago dabil kirol honetan “popularrak bihurtu da eta herrian pista zabal-

tzean lasarteoriatar gehiago animatuko direla uste dut”. Momentuz “nirekin kontaktuan jarri direnak 20 urtetik gorakoak dira, baina urteak animatzea gustatuko litzaidake” Lorenzoren hitzetan.

Momentuz Ondarretako pista entrenatzen dute, baina herrikoa irekitzean “bieten ibiliko naiz” dio Lorenzok. •



Argazkia: www.padel.info

Gipuzkoako padel txapelketako irabazle guztiak torneo amaitu ondoren

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Ikasle eta sukaldari finak

Udal Euskaltegiko euskara ikasleek sukaldaritzarako dituzten dohainak probatu zituzten ostegunean ikasgelen arteko pintxo lehiaketan

**E**uskara ikasleak sukaldari bihurtu ziren ostegunean Udal Euskaltegian. Urtero egiten da txapelketa eta ikasleak eguna iritsi zain egoten dira giro bikaina izaten baita. Goiz eta arratsaldez burutu zen pintxo lehiaketa, ikasgela bakoitzak bina pintxo hotz prestatu zituzten eta bi irabazle izan ziren, **Txalupatxo Goxoa** goizean eta **Udazkeneko Gutizia** arratsaldean. Ttakin Elkarteko epai mahaioek adierazi zuten zaila izan zen aukeraketa, maila handiko mokaduak prestatu zituzten eta. Irabazi zuten bi pintxoek zuten gazta, intxaurrea eta modena karamelizatua.

Udal Euskaltegiko Pintxo Lehiaketan urtero bezala ikasleek pintxo original eta goxak prestatu zituzten euren geletan. Aurkezpen dotorea zuten pintxoek, tartaleta, tomate beteak, ogi gainekoa, ... denetarik egin zuten ikaskideek taldean eta zapo-reetan ere ugaritasuna nabari zen. Guztiak saiatu ziren sukaldaritzan duten trebezia erakusten.

Hamar pintxo izan ziren lehian goizean eta beste hamar arratsaldean. Beraz hamar pintxo dastatu zituzten epai mahaioek, goizean Aitzol Zerain eta Asier Gorostegi Ttakuneko Bulegoko langileak eta arratsaldean Alex Ramos eta Marian Bueno Solaskide ekimeneko partaideak.



Alex Ramos eta Marian Bueno solaskideak izan ziren epai mahaiko arratsaldeko taldeen arteko pintxo lehiaketan.

Pintxo guztiak dastatu eta gero, deliberatzera erretiratu ziren epaimahaioak eta tarte horretan gela bakoitzeko ordezkari batek pintxoaren osagaiak eta egiteko modua azaldu behar zituen bestearen aurrean, sukaldaritzara eta euskara uztartuz.

Horrela sukaldaritzara arloko terminologia eta esamoldeak landu zituzten ikasleek. Ondoren, bai goizean bai arratsaldean epai mahaioek euren erabakiaren berri eman zuten.

Esan bezala goizeko irabazlea "Txalupatxo Goxoa" izeneko pintxo izan zen eta arratsaldekoa "Udazkeneko Gutizia". Bonboi kaxa bana jaso zuten sari gisa irabaz-

leek, baina hori gutxienezkoa da, handia da eta horren harrera ona duen lehiaketaren irabazlea izatea. Sari banaketaren ondoren pintxoak probatu zituzten guztiak.

## Txalupatxo goxoa

Goizeko irabazlea, Txalupatxo Goxoa izan zen, rokefor eta filadelfia gazta, intxaurrea, perexil eta piperbeltz apurtxo bat eta modena karamelizatua zeukan pintxo. Egiteko, rokefor gazta xehetu, ore egin, berotutako filadelfia gaztari gehitu, dena ondo nahastu eta gazten nahasketari intxaurrea xehetuak, perrexil txikitua eta piperbeltza bota. Hau endibia hosto gainean jarriko da eta apaintzeko

intxaurrea puskak bat eta modena karamelizatua.

## Udazkeneko Gutizia

Ogi xerra, ahuntz gazta, tipula, azukrea, intxaurrea eta modena karamelizatuarekin egin zuten arratsaldeko irabazlea. Hasteko, tipula karamelizatua prestatu behar da, tipula "juliana" eran ebaki eta zartagin batean su motelean egin gorritu arte, azukrea erantsi eta pare bat minutu gehiago eduki sutan dena nahastuz. Ogiaren gainean ahuntz gazta xerra jarri, honen gainean tipula goxatua eta apaintzeko intxaurrea eta modena.

Zorionak irabazleei eta on egin guztiak! •



## ELKARTASUNA

### Sahararen aldeko egutegia salgai tabernetan

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan egongo dira salgai 7 euroen truke.

Bildutako dirua, kanpamentuetara doan janariaren euskal karabana antolatzen laguntzeko bideratuko da. •

## ARRIESKALLETA ELKARTEA

### Erraldoiekin dantzatzeko ikastaroa

Erraldoiak dantzatzen ikasteko Arrieskalleta elkarteak ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren lehenengo zatia, gainera, Arrieskalletan bertan emango da.

Interesa izanez gero, elkartetik pasa izena ematera edo arrieskalleta@gmail.com helbidera mezu bat bidali izena eta telefonoa jarri.

Izena emateko azken eguna abenduaren 17a da. Animatu eta hartu parte! Izan zaitetz jaien partaide! •



**Emakumeen bizipenak eta sentimenduetan murgilduz.** Emakumeen Zentro Zibikoak genero indarkeriaren aurkako egunaren, azaroaren 25eko, ospakizunei jarraipena eman zieten, ostiralean. Lehenik, *Reencuentros con nuestras cosas* antzezlan eskaini zuten Manuel Lekuona kultur etxean. Umorea eta drama nahasten zituen lan honetan, Zentro Zibikoan eskaintzen diren aerobic, batuka, yoga, dantza, kantu, ipuin kontaketa eta antzerki taldeetako kideek batera parte hartu zuten. Honen ostean, ekintzei amaiera emateko, Araeta jatetxean herriko ehun emakume baino gehiago bildu ziren bapero onean afaletzeko. •

## Euskararen egunean argazki masiboa

Urtero legez, abenduaren 3an, ostirala, Euskararen Eguna ospatuko da.

Gure herrian hain data garrantzitsua ospatzeko, Kuadrillategi eta Gazte klubeko gazteek hainbat ekintza prestatu dituzte.

### Argazki masiboa

Lehenik, 17:00etan, argazki masiboa atera nahi dute Andatza plazan.

Horregatik, antolatzaileek deialdia zabaldu egiten dute, "ez dira zertan gazteak izan behar. Adin gu zietara irekia dago, beraz, haur, gazte eta heldu guztiak daude gonbidatuak argazkian parte hartzeraz".

Argazkian agertzeko baldintza bakarra koloretako antzerki bat eramatea da. Ez ahaztu!

### Ekitaldia Jalgin

Argazkia atera ostean, 18:00ak aldera, guztiak Jalgi kafe-antzerki hurbilduko dira.

Bertan ekitaldi berezia prestatu da. "Oraindik ezin dugu, asko zehaztu baina musikarekin zer ikusia izango du" aurreratu digute.

Beraz, Kuadrillategi eta Gazte Klubaren eskutik, ostiralean, Euskararen Eguna ospatzeko aukera izango da Lasarte-Orian. •



Zortziroko lagunek Agurriz dantzatu zuten Agus Mujika, Takoloki Gorri jatorreko harrerara sartu zenean.



Imanol Lizardik bertso musikatu hungarierri eskaini zion bere lagun minari.



Giro ederra egon zen ekitaldi aurreko aharian. Bihun bat heldu en gazteko bidu ziren Takoloki omenaldia egiteko.

## Musika eta umorea nagusi Agus Mujikaren ohoretan

■ Giro ederra egon zen Ttakun sarietan ■ Agus Mujikkak bentrilokia saioa egin zuen bere omenaldian

### TXINTXARRI

Esuskara ikasi, irakatsi eta hau sustatzeko hainbat ideia izan. Hori da, labur-aurten, Agus Mujika, *Takoloki* aurtengo Ttakun Saria izateko egin dituen merituak.

gotu zituazten ekitaldi honetara bidu ziren herritarrek.

### Omenaldia

Horretarako, Ttakun itsas bidaietako itsasontzi berezian sartu ziren guztiak.

Omenaldiko aroetan sartu baino lehen, bidai hasierako angakia ateratu zuten itsasontziaren eta gure herrian eta honetatik tempo euskararen alde egin dituen guztiak ez-



Ekitaldi sarru lehen, argakiak saio berez egin zen Goiegoko harreran.



Agus ezin izan zion gogoratu esueli. Amaren balarra dionua kantatu eta Martinxo pauphararen saioa egin zuen.

neurriak ere adi entzun zituzten guztiak.

Zuaznabar ahizpek jotako txalapartaren dionuak, Agusen merituak azaltzen zituen bideoaren aurrean izan ziren.

Honetan, Ebu Galardi eta Iñisa Fernandez de Agirrek, Agusen lagun eta ezagunak bildu dituzte.

Hauen testigantzek eta garrantzi argak eta bideoek Agus Mujikaren omenaldia erakusten dute. Garrantzi handia duen audiotaldea eta Garakoetxea ikusitolan egindako lana erakusten zuten, hala nola, Xixuko eta Olenzeroren etorria Lasarte-Oriara. Agus Mujikaren erakunde bileren normalizatzeko Udalean

Erakundearen herriko paila-zoen sorreraz eskualde girozko barnelehen eta Maratoko ideari buruz gehiago jakin zuten bertan bildu zirenak. Osean, Mari Jose Elizan-

Agus bere bere show-aldian. Abestu eta Martinxo pauphararekin bentrilokia saioa egin zuen.

Gainera, Zaldibiko ohituretako bat Lasarte-Oriara ekarri zuen. Gaitza bat zintzilikatu eta hain altueran zenbat milimetro-ra zegoen asmatzen zutenak, gazta eta mondejo sorta bat eramango zuten.

Jendek bere apustuak egiten zuten bitartean, Ibon Etxabek zaldibitar gazteak magia saioa egin zuen.

Azkenean, hiru izan ziren sari eman zutenak.

Eta omenaldiari amaiera emateko, karroka eta maratoiko abestiak izan ere, zortziko-tekko kidetok izan ziren *Geo-herro* abestiaren hasi zirenak. Agur Xuberoa, *Betin* bafan, *Lobain* edo *Rita/Rit* bionuek arretoko ikusleak dantzatzen eta kantatzen jarraitu zituzten.



Ibon Etxabe zaldibitar gaztearen magia saioa ikusleko aukera ere egon zen.



Karroselan Agur Mujika omenaldia honen amaiera eta arretoko guztiak abestu eta dantzatu zuten, hain nola, patuzen *Mile-768* abestu.

**ANNAIAK**  
JANTZI - DENDA  
40 URTE ZUEKIN !!  
Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362386

**MATTE**  
ESTETIKAKO ARLOA  
Foto depilazioa argi pulsatibarekin  
• Era gurtietako depilazioak • Makillajeak  
• Aurrerako tratamenduak • Beste hainbat zerbitzu  
• Gorpuzteko tratamenduak  
Uistin Kalca z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Igor Unanue eta Mikel Urdanpilleta Georgian bidaiari

# “Georgiarrek jarrera oso ona dute”

Georgian familien etxeetan egin dute lo eta honela, bertako jendearekin harremana izan dute

Europako ekialdean dagoen herrialdea dugu Georgia, Errusiaren inbasioaren mehatxupean bizi dena da eta ondoan Osetia eta Abkhazia eremuetako gatazka duena. Hala ere, herriko bi gaztek, Igor Unanue eta Mikel Urdanpilletak udan bertara joatea erabaki zuten. Lau astez, Georgiako eremu desberdinetan barrena ibili eta bertako jendearekin bizi ziren. Asteazkenean, 21:30ean, Jalgi kafe antzokian, bidaiaren diaporaman eskainiko dute. Hurrengo lerroetan aurrerapen bat duzue.

NEREA EIZAGIRRE

## Nola sortu zitzaizuen Georgiara joateko ideia?

Duela hiru urte genuen joateko asmoa, baina orduan Georgiak arazoak izan zituen, Errusia sartu zen. Pendiente genuen gauza zen. Gainera, erakartzien gaituen eremua da.

## Nondik ibili zarete zehazki?

Eremu desberdinetan ibili gara eta bidaiari martxan moldatuz. Gure patxadarekin, lau astez, ekialdea, iparraldeko pare bat eremu eta Itsaso Beltza ikusi ditugu. Armenian ere aste bete egin genuen.

Izan ere, bertara iritsi eta konturatzen zara zuk etxetik daramazun ideia egiteko aukerarik ez dagoela, uste baino zailagoa dela edo hori egiteko denbora gehiago eramaten duela.

## Beraz, hango garraioetan ibili zarete?

Bai. Hango garraio publikoa furgonetak dira, oso eroso da, maiztasuna dute eta oso erraza da garraioa aurkitzea. Oso merkea ere bada.

Bestela, mendi aldera joateko, esate baterako, errepide txarrak direnez, 4x4ak behar dituzu. Trenen bat ere hartu dugu, baina bestela bertako garraioetan ibili gara.

## Gainera, zuena ez da turismo bidaia izan, ezta?

Horrela da. Guretzat bizipenak izan eta jendea ezagutzeko izan da.

Bagenekien mendi aldean paraje izugarriak ikusiko genituela eta horrela izan da. Baina garrantzitsuen bizipe-

nak izan dira eta, batez ere, jendea. Georgiarrek jarrera oso ona zeukaten.

## Nola lortu dituzue bizipen horiek?

Ez gara presaka ibili eta itxaroten jakin dugu. Egun batzuk geratzen bazara, jendea gehiago gerturaten zaizu eta haien denda batean hirugarren egunez sartzean, kuriosidadea pizten duzu.

Gainera, familiekin bizitzeko eremuak oso onak dira. Oso erraza da lo egiteko lekua aurkitzea. Hara iritsi eta norbaitek ematen dizu leku baten berri edo norbait dator zuri eskaintzera. Oso erraza eta prezio onean.

Honela, baserri batzuen etxean ginela, Kaukasoko parajeak ikusten genituen ilunabarretan eta egunsentian. Sekulakoak ziren.

Orokorrean, harrera ona izan dugu eta hizkuntza alde-rik zailtasun batzuk.

## Izan ere, zein hizkuntza erabiltzen dute?

Georgieraz hitz egiten dute eta gehienek erusieraz badakite. Hogeita hamar urte baino gehiagoko jendeak erusiera hitz egiten du eta gazteek ingelesa.

Gu erusierazko hitz gutxi batzuekin moldatzen ginen, eguneroko gauzetarako erabiltzen dituzunak.

## Georgiatik azpimarratuko zenuketen zerbait...

Oso erlijiosoak dira. Asko harritu gaitu horrek eta gazte jendea ere bai.

Eliza edo ermita txiki baten aurretik autobus guztiak aitaren egiten zuten, gazteak, zaharrak...



Kaukasoko mendietan ibili dira eta baserriarren etxeetan egon dira lo egiten Igor Unanue eta Mikel Urdanpilleta herritarrek.

Gainera, erreferentzi bat eskatzean, erlijio eta eliza aipamenak beti egiten zituzten.

Gu ez gara oso elizkoiak, baina haiekin ibili garenez. Eramatan utzi gara, haiek momentuan erabakitakoa eta elizek garrantzia handia daukate haien zentzuetan.

## Orduan, monastegiak ikusiko zenuketen?

Kristautasunarekin lotura daukaten monastegi zaharrenak Armenian eta Georgian daude.

Monastegiak baino, koka-penak oso politak dira, puntu altuak, bailarak kontrolatzen dituzte.

Ikusi ditugun fraileek, bizitza isolatua dute. Pena da ezin duzula asko galdetu.

Gainera, erusiarrek historia gutzia berritzen edo txikitzen saiatu direla ikusi dugu. Apurtzen ez bazituzten, irudiak zuriz margotzen zituzten. Orain horiek berritzen ari dira eta eliza berriak egiten.

## Armenian ere egon zarete...

Armenian denbora gutxi genuela kontziente ginen Erevanera, hiriburura joan eta eskaintzen zituen gauzak ikusi genituen. Aste beteaz gero, gutzia ikusiko. Irteera pare bat egin genituen, genozidioaren museora, etb.

Erevanek harritu gintuen, herrialdetik oso desberdina delako. Hiriburura gindoazela, lautada horia eta lehorrak, animalien txabolak... ikusi

genituen eta Erevan modernotasun handiko hiria da, hemengo dendei irekia.

Herrialdeko biztanleriaren herena bertan bizi da, beraz lautadan jenderik ia ez da bizi.

## Bidaian bitxikeriarik izan al duzue?

Bai, euskaldunak ginela esan eta poztu egiten ziren.

Gu bidaia prestatzen hasi ginenean Armenia edo Georgia ez genituen ezagutzen, hiriburuak, mugak... begiratu genituen eta joan garenean haiek gutaz gehiago dakitela konturatu gara.

Euskal Herria ezagutzen dute eta anaitzat hartzen gaituzte. Haiek garbi daukate gu handik gatzela eta gure jatorria hori dela eta anaitasun eta elkartasun handia adierazi ziguten.

## Bidairen zein irakurketa egingo zenukete...

Oso aberatsa izan da, batez ere, jendearen aldetik. Jendearekin sentitu dugunagatik.

Ez dugu eduki jendearekin, ezta egoera txar bat ere. Eta une oro inprobisatua egin dugu. Tentsio puntu minimo bat ere ez dugu izan.

## Zer gustatu zaizue gehien?

Kaukasoen naturak duen indarra, mendiak eta daukaten eskala eta hor barruan kokatuta dauden herri txiki horiek eta bertako jendea oso atsegina dela. Gainera, gaur egungo bizimoldetik gutxi

deskonektatuak daude. Mendia gustatzen zaion pertsona batentzako leku aproposa da.

Gustatu zaigun beste gauza bat zera da, turismo gutxi zegoela. Masako turismoa ez da topatzen, biko-teak edo talde txikiak dira eta turismo egiteko era desberdina da.

Guk askotan aurretik ez genuen familia lotzen, iritsi eta bagenekien lekua izango genuela nonbait lo egiteko ez dagoelako halako turismo mugimendurik. Herria lasaia dagoenean ikusiko da.

Aurkitu ditugun turistak poloniarrek, ekialdeko jendea eta israeldarrak izan dira.

Gainera, poloniarrek aurkitzea guretzako primarioa zen. Haiek erusiera eta ingelesa hitz egiten zuten, haiekin joan eta gauza gehiago ikasten zenituen.

## Bueltatuko al zinatekete?

Urte gehiago biziko bagina, seguru bueltatuko ginetekeela. Ezagutu ditugunak ikusteko, izan ere, Georgiatik ateratzeko zailtasunak dituzte.

Baina beroan hori pentsatzen dugu, gero hainbeste leku dago ikusteko.

Armeniara agian. Baina azpiegitura gutxi ditu, ez dago ia turismoa, joaten dena Erevanera doa hiriburura.


Mentalizatuta joan behar da. Ze ikusitakoaren arabera, ez da oroigarriak aurkitzeko lekua. Familien etxeetan egin beharko duzu lo eta mugitze-ko ere... •

*“Georgiarrak gutaz gehiago dakitela konturatu ginen. Euskal Herria ezagutzen dute eta anaitzat gaituzte. Garbi dute handik gatzela”*

Egunero

**Erakusketa**

METAMORFOSIAZ, Jasone Irigoien-en margo erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



**Erakusketa**

NEJAPAKO FROILAN ELESPE PROIEKTUko erakuskea. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Asteazkena, 1

**Diaporama**

GEORGIAri buruzko diaporama eskainiko dute Igor Unanuek eta Mikel Urdanpilletak Tts-kun Kultur Elkarteak antolatzen duen Bidaetako Diaporamen zikloaren barruan. Jalgi kafe-antzokian, 21:30ean. EUSKARAZ.



Koruko Zurutzarekin ipuinen munduan murgilduz

IPUINAREN ORDUA Koruko Zurutzak 6, 7 eta 8 urteko haurrei ipuin berriak eta dibertigarriak kontatuko dizkie. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira gelan. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera edo sartu.

ASTEAZKENA, HILAREN 1A  
HAUR LIBURUTEGIAN, 18:00ETAN  
EUSKARAZ

Ostirala, 3

**Argazki masiboa**

EUSKARAREN EGUNA dela eta Kuadrillategikoek eta Gazte Klubeko gazteek argazki masiboa aterako dute. Andatza plazan, 17:00etan.

**Ekitaldia**

EUSKARAREN EGUNA dela eta, ekitaldia berezia antolatu da da Jalgi kafe-antzokian, 18:00etan.

Osteguna, 9

**Hitzaldia**

LA REVOLUCIÓN POR EL TEJADO hitzaldia eskainiko du Lucio Urtubiak, FALek antolatuta "Fundacion anselmo Lorenzo". Hitzaldi hau CNT-ren 100. urteurrenaren ospakizunen barruan dago. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan. GAZTELANIAZ.



Asteartea, 14

**Hitzaldia**

Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta, HAUR TIRANOAK hitzaldia eskainiko du. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ.

**Oharrak**

**Sahararen aldeko egutegia**

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren eskal karabana antolatzen laguntzeko bideratuko da.

**Erraldoiak dantzatzeko ikastaroa**

Erraldoiak dantzatzeko ikasteko Arrieskalleta elkarteak ikastaroa antolatu du. Interesa izanez gero, elkartetik pasatzen ematera edo arrieskalleta@gmail.com helbidera mezu bat bidali izena eta telefonoa jarri. Ikastaroaren lehenengo zatia Arrieskalletan bertan emango da. Izena emateko azken eguna abenduaren 17a da. Animatu eta hartu parte! Izan zaitetz jaien partaide!

**Ostadar K.F.-ren loteria**

Ostadar Kirol Fundazioak Gabonetako Loteriako txartelak ditu salgai, 68226 zenbakia. Interesa duenak kirol elkarteko egoitzara hurbildu, Geltoki kaleko 25. zenbakira.

**Jaiotzen lehiaketa**

Danok Kide Guraso Elkarteak aurten ere XVIII. Jaiotzen Lehiaketa antolatu du. Lanak abenduaren 20an eta 21ean entregatu behar dira 18:00etatik 20:00etara Blas de Lezo kaleko egoitzan. Jaiotzek 80 x 60 zm.ko neurria izan dezakete gehienez. Euskarri sendoa ez duen jaiotzik ez da onartuko, ezta lehiaketa honetara aurreko urteetan aurkeztutakorik ere. Banaka nahiz taldeka har daitete parte beti ere lan bakarra aurkeztuta.

Esazu irratiko programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara.

**Dagokionari**

Haxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Eskutitzak**

**Donostialdeko Lurralde Zatikoa Planaren aldeko apustua**

Donostialdea-Bidasoa Beheko Lurralde Zatikoa Planari alegazioak egiteko epea bukatzeaz dago, Eguzkik plan hori gaitzesten duela jakinarazi nahi du. Izan ere, erakunde publikoetatik bultzatzen duten hormigoizko eta asfaltozko garapen ezin eutsizkoaren beste adibide bat baino ez dela iruditzen zaigu. Garapen eredu horrek, kasu honetan, proiektu jakin batzuk ditu oinarri, AHT eta Superportua, alegia. Eta proiektu horiek herritarrei kostatzen ala kostatzen inposatu nahi zaizkie, gehienek eskatzen ez dituzten arren eta askok eta

askok espresuki arbuiztzen dituzten arren.

Ezer baino lehen, argi eta garbi zera esan behar da: LEP honek, teorian antolatzeko tresna bada ere, ez du ezer ere antolatzen; alde aurretik hartutako erabaki jakin batzuei babes administrati-boa ematen die, ez besterik. Izan ere, ordenazioa AHT-k eta Superportuak ezartzen dute, de facto. Horien arabera "antolatzen" dira gainerako guztiak. Horra, adibidez, Lezo-Gaintxurizketan aurreikusten den plataforma logistikoa. Plataforma hori Superportuari eta AHTri begira dago, AHTk, dakigun bezala, merkantziarik garraiatuko ez duen arren.

Zubietako kasuak ere argi-oro erakusten du planak, anto-

latu beharrean, alde aurretik hartutako erabakiei babesa ematen diela. Zubietan errauskailua, kartzela eta beharbada Gipuzkoako industrialderik handiena koka daitezkeela nonbait erabaki dute eta planak horixe berresten du, ez besterik.

Urumea behin betiko suntsituko dute. Alde batetik, AHTren geltokia eraikiko dutelako eta horretarako ibai desbideratu ere, eta bestetik, Donostia, Astigarra eta Hernani bitartean, 20.000 etxebizitza berri aurreikusten dituztelako.

Eta errepede berriak ere aurreikusten ditu planak, jakina. Donostiako Bigarren Ingurubidearen irekiera dela eta, Eneko Goia diputatuari entzun berri diogu Gipuzkoa-

ko sarea osatuta zegoela. Egia esan, berak baino lehen postua okupatu zuten beste batzuei ere horrelakoak entzun genizkien. Bada, plan honek, beste hainbat errepedideren artean, Bigarren Ingurubide horixe Iruneraino lutzatzea aurreikusten du.

Irun aipatu dugula aprotzetaz, planak Irunen bertan, Olaberriean, zentral termiko bat eraikitzea ere aurreikusten duela esan behar dago.

Ingurune naturala, berriz, hormigoien menpe gertatzen da, ohi bezala. Paraje jakin bat babesten dutenean ere, ez dute babesten berezko natur balioa duela uste dutelako, bertan jartzeko hormigoizko proiekturik oraindik ez dutelako baizik.

Horrela gauzak, plan honek auzoen artean eta, are, udalen artean ere argi gorriak piztu izana ez da harrizkoa. Udalek, gainera, plan honen bidez beraien autonomia baldintzatu nahi dutela ikusten dute. Beraien udalerririk antolatu nahi dituzte, baina antolaketa beraiekin adostu gabe. Udalak alegazioak aurkezten ari dira. Hernanin, Irunen, Oiartzunen eta Lezon, behintzat, hainbat herritar ere planaren aurkako sinadurak biltzen hasi dira.

Gauzak horrela, Donostialdea-Bidasoa Beheko Lurralde Zatikoa Plan atzera birtatzeko eskatzen dugu Eguzkikoek.

**Juan Mari Beldarrain**  
Eguzkiko kidea

# Literatur Lehiaketak baditu sarituak

Itxaso MORENO

Literaturak gure herrien hitzordua berezia du urtero, larunbatean burutu ziren Lasarte-Oriako Literatur Lehiaketan sari banaketa.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi areto jendez gainezka zegoen aurten go irabazleak ezagutzeko.

Ekitaldia Jose M<sup>o</sup> Milagro Artiedak idatzitako *Alcanzar el sentido* eta Axier Arteaga Garaialderen *Txantxangorria* poesia irabazlearen irakurketa-ekin hasi zen. Noemi Fernandez eta Aitor Tejedoren ahotsetan, Iñigo Calvo eta Julen Basterra gitarra joleen doinuaren laguntzaz, entzun ziren olerkiak.

## Umeak idazle

Ondoren, Haur eta gazteen XXIII. literatur lehiaketako sari banaketari ekin zioten.

2001. urtean edo ondoren jaiotako mailan, euskaraz Nahia Arruti Berrio-Otxoa lortu zuen garaipena *Muha-*

*ren istorioa* idazlanarekin; gaztelarazkoan, berriz, Borja Moralejo Tobajas *El planeta en apuros* obrari esker.

1998, 1999 eta 2000 urtean jaiotako artean, Julen Urruzola Oiangurenen *Andoniren sandalia berriak* obrak lortu zuen euskarazko idatziko sari gorena eta gaztelarazko idazlanean aldiz, *Arbequina* obrarekin Leire Chorro Holgado izan zen saritua.

Gazteen mailan, 1995, 1996 edo 1997 urtean jaiotako artean, Saioa Perez Cartek lortu zituen bi hizkuntzetako lehenengo postua, *Basamortuetako maitasuna* eta *Desaparecida* idazlanei esker. Maila honetan gainera, besteetan ez bezala, poesia saria eman zen, Axier Arteaga Garaialderen *Txantxangorria* lanak merezi izan zuen.

## Helduetan lasarteoriatarak

Lasarte-Oriako XXIV. Literatur lehiaketan euskarazko ipuin kategorian Axun Azurza Irao-



Saridun guztiak eta udal ordezkariak argazki ofiziala ateratzeko bildu ziren ekitaldia amaitutakoan.

la lasarteoriatarak eskuratu zuen lehenengo postua *Zorioneko autobusa* obrari esker.

Poesia arloan, Antonio Casado hernaniarra izan zen garailea *Satorraren mendia* idazlanari esker.

Erdarazko kategorian, berriz, ipuin sailean *Mi serena tristeza* lanak Miguel San-

chez Robles murtziarrek saria eramatea ekarri zuen.

Lasarte-Oria Saria ere eskaini zen atal honetan, sariduna David Ares Rodriguez herritarra izan zen *Moises el hombre congelado* obraren bitartez.

Poesia sailean, ez ustekoa egon zen, bi irabazle izan baitira aurren, Alcalá de

Henareseko Jose M<sup>o</sup> Milagro Artieda *Alcazar el sentido* lanarekin eta *Teselas, Tankas y Haikus en mi invierno* Inak M<sup>o</sup> Socorro Luis Fernandez pasaitarrari eman zion saria.

Hurrengo urtean, helduen lehiaketak mende laurdena beteko du, ea partehartzaile kopurua mantentzen den. •

**Eztipphoto**

**2010/11 GABONAK**

ERREGE EDO OLENTZEROTARAKO OPARITU ERRETRATU BAT!

ARGAZKI SESIOAK **65 EUROTAN**

Golf Plaza 4, Atsobakar. Tlf: 943 900 565 [www.eztipphoto.com](http://www.eztipphoto.com)

# Literatur Lehiaketak baditu sarituak

Itxaso MORENO

Literaturak gure herrien hitzordua berezia du urtero, larunbatean burutu ziren Lasarte-Oriako Literatur Lehiaketan sari banaketa.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi areto jendez gainezka zegoen aurten go irabazleak ezagutzeko.

Ekitaldia Jose M<sup>o</sup> Milagro Artiedak idatzitako *Alcanzar el sentido* eta Axier Arteaga Garaialderen *Txantxangorria* poesia irabazleen irakurketa-ekin hasi zen. Noemi Fernandez eta Aitor Tejedoren ahotsetan, Iñigo Calvo eta Julen Basterra gitarra joleen doinuaren laguntzaz, entzun ziren olerkiak.

## Umeak idazle

Ondoren, Haur eta gazteen XXIII. literatur lehiaketako sari banaketari ekin zioten.

2001. urtean edo ondoren jaiotakoan mailan, euskaraz Nahia Arruti Berrio-Otxoa lortu zuen garaipena *Muha-*

*ren istorioa* idazlanarekin; gaztelarazkoan, berriz, Borja Moralejo Tobajas *El planeta en apuros* obrari esker.

1998, 1999 eta 2000 urtean jaiotakoan artean, Julen Urruzola Oiangurenen *Andoniren sandalia berriak* obrak lortu zuen euskarazko idatziko sari gorena eta gaztelarazko idazlanean aldiz, *Arbequina* obrarekin Leire Chorro Holgado izan zen saritua.

Gazteen mailan, 1995, 1996 edo 1997 urtean jaiotakoan artean, Saioa Perez Cartek lortu zituen bi hizkuntzetako lehenengo postua, *Basamortuetako maitasuna* eta *Desaparecida* idazlanei esker. Maila honetan gainera, besteetan ez bezala, poesia saria eman zen, Axier Arteaga Garaialderen *Txantxangorria* lanak merezi izan zuen.

## Helduetan lasarteoriatarak

Lasarte-Oriako XXIV. Literatur lehiaketan euskarazko ipuin kategorian Axun Azurza Irao-



Saridun guztiak eta udal ordezkariak argazki ofiziala ateratzeko bildu ziren ekitaldia amaitutakoan.

la lasarteoriatarak eskuratu zuen lehenengo postua *Zorioneko autobusa* obrari esker.

Poesia arloan, Antonio Casado hernaniarra izan zen garailea *Satorraren mendia* idazlanari esker.

Erdarazko kategorian, berriz, ipuin sailean *Mi serena tristeza* lanak Miguel San-

chez Robles murtziarrak saria eramatea ekarri zuen.

Lasarte-Oria Saria ere eskaini zen atal honetan, sariduna David Ares Rodriguez herritarra izan zen *Moises el hombre congelado* obraren bitartez.

Poesia sailean, ez ustekoa egon zen, bi irabazle izan baitira aurretan, Alcalá de

Henareseko Jose M<sup>o</sup> Milagro Artieda *Alcazar el sentido* lanarekin eta *Teselas, Tankas y Haikus en mi invierno* Inak M<sup>o</sup> Socorro Luis Fernandez pasaitarrari eman zion saria.

Hurrengo urtean, helduen lehiaketak mende laurdena beteko du, ea partehartzaile kopurua mantentzen den. •

**Eztipphoto**

**2010/11 GABONAK**

ERREGE EDO OLENTZEROTARAKO OPARITU ERRETRATU BAT!

ARGAZKI SESIOAK **65 EUROTAN**

Golf Plaza 4, Atsobakar. Tlf: 943 900 565 [www.eztipphoto.com](http://www.eztipphoto.com)